

GASKUÑAKO EUSKAL TOPONIMIAREN BILA

Denok ondotxo dakigunez, Euskal Herria lurrez eta eremuz, orain dena baino askoz zabalagoa izan da aintzinako garaietan. Lehenengo erromatar kronistek digutunez, euskal leinuak iparraldetik Garona ibairaino iristen omen ziren. Eta beste zenbaitetan aitutzen digutenez, baita Loira ibairaino ere. Geroztiko historiagileek gauza bera errepikatzen digute, hona hemen adibidez, Valois-eko Adrianok bere «Notitia Galliarum» izeneko liburuan dioena: «mendietako euskaldunak makina bat aldiz jeitsi ziren Novem populanium-eko lurraldeetara, eta garaiko frankoen arteko liskarretaz baliatuz, Auñamendi Mendikatea eta Garona Ibaiaren arteko lur eremu osoaz bernagusitu ziren, lur honi Baskonia deituz, eta beren duke independenteen agintea eraikiz».

IX. mendeko Ravenako idazle anonimoak zioenez, Hego aldeko Baskonia Baionatik behera zegoena zen, eta Ipar aldeko Baskonia edo —hizkera aldaketa batez esana— Gaskuña Baionatik Loira Ibaiaino luzatzen omen zen. Michelet izeneko frantses historiagileak bere «Histoire de la France» liburu bilduman gauza bera errepikatzen du behin eta berriro: «VII. mendean Neustrio Inperioa desegiterakoan, euskaldunek Akitania berreskuratu zuten, Vasconia edo Gaskuña deituz, eta beren agintea Loira ibairaino ipiniz».

1.— AKITAINA / GASKUÑAREN BIKOTASUNA.—

Ptomeo, Tito Livio, Strabon, Valerio, Maximo, Tacito, Festus, Avienius,... eta bestelako historiagile eta kronista klasikoen idazkiak aztertzerakoan honako euskal gizatalde edo leinuak agertzen zaizkigu: karistiarrak, barduliarrak, autrigoiak, beroiak, baskoiak eta akitaniarrak. Kronista hauei jaramon eginez, esan dezakegu baskoiak eta akitaniarrak oso senidetasun haundiko leinuak zirela, eta baskoiak Atturi ibaitik Oiartzun ibairaino zabaltzen ziren bitartean; akitaniarrak berriz, Aturri ibaitik Garona ibairaino. Hala ere zenbait kronista ez daude mugapen honekin ados, eta ipar aldeko muga Loira ibaiaren latsetaraino eramaten dute, sarreraren testuetan ondo ikus ahal izan dugun bezala.

Hasiera batean, akitaniarren lur eremu zabal honi AKITANIA deitu zitzaion, eta urteen poderioz beste izenak sortu ziren: Vasconia, Gaskuña,... baina danek lur eremu beraren berri eman nahi digute. Arazoa da mugak non jarri. Normalena izaten da Baionatik Garonaraino defendatzea, baina zenbait testu zaharrak dionez, Loira ibairaino Akitaniatzat jo beharko genuke. Gaur Akitaniaz edo Gaskuñaz hitzegiterakoan, Garonatik Atturiraino dagoen eremu zabala entendi-tzen dugu, eta hauxe da gaur, liburu guztietan azalten dena.

2.— GASKOINERAREN HISTORIA.—

Federiko Krutwig euskaltzain eta idazle ospetsuak bere «Vasconia» izeneko liburuan defendatzen duenez, ordutik Euskal Herriak bi bide politiko-kultural ezberdin hartu zituen. Hego aldeko Baskoniak, Baionatik behera zabaltzen dena alegia, guztiz euskalduna jarraitu zuen bitartean, goiko Baskonia edo ipar aldekoa, beste izen batez esana Akitaniak, bere hizkuntza galdu zuen, euskal sustrato haundiko erromantze bat sorteko: Gaskoiera.

Iparaldeko Baskonian politikoki, Akitaniako Dukerria eraikitzen zuten bitartean, Hego aldekoan berriz, Iruñeko Erresumaren inguruan gorpuztu ziren, denborarekin Nafarroako Erresuma sortaraziz. Ikus dezakegunez oso bide ezberdinak ipar eta hegoko lurraldeetan hartu zirenak. Krutwig-ek dionez, Euskal Herria ez da Baiona aldean amaitzen, Bordel aldean ezik, eta gure kultura ez da bakarrik euskararen inguruan egiten dena, baita gaskoiaren inguruan egiten dena ere baizik. Beraz, euskara gure hizkuntza zaharra den bitartean, gaskoiera euskal erromantzea izanen litzateke, eta biek ematen diote gure herriari bere nortasuna eta bere idiosinkrasia.

Gaskoinerak baditu bere dialektoak: biarnoera Biarno aldean mintzatzen dena, bordelera Bordel aldean, konbenera Kondomeko bailaran, landera Landetan, armainakera Armainak deritzan euskaldunena, eta girondera Gironda aldean. Erromantzea izan arren, baditu euskaratik hartutako hitzak, edo hobeto esanda, sustraiak. 1100 urte inguruan, eta gaur ondo ezagutzen ez ditugun arazoak direla eta, gaskoi asko eta asko Hego aldeko Baskoniara jeisten hasi ziren, gaskoien hiri eta herri mordoxka sortuz. Badirudi Donostia berak oso gaskoin kopuru haundia izan zuela, eta frogarik onena udalak gaskoieraz ateratako bando eta agiria. Pasai Donibane eta Lezo oso Gaskoin egoitza haundiak izan zirelarik. Gaur gaskoierazko toponimoek: Urgull, Polloe, Poyuelo, Miramon, Aiete, Mans, Puyo, Morlans, Sagues, Belok, Monpas,... eta gure artean dauden gaskoin abizenek: Artigas, Bandres, Trezet, Arzak, Molet, Pollon,... beraien oroimena dakarkigute etengabeki gogora.

3.— Behin Landak aldera bidaiatxoren bat egiteko pronto nengoela, bailara hartako mapa batekin egin nuen topo, eta segitzeko bidea prestatzen hasi nintzeanean, zenbait euskal itxurako herri eta leku izenekin aurkitu nintzen. Harrituta, bertako toponimia iker-tzeari ekin nion, eta baita Gaskuña edo Akitania oso-ko historia eta izakerari buruzko zenbait libururen irakurtzeari. Federiko Krutwig-en «Vasconia» liburuak eman zizkidan pistarik gehienak, eta berari esker ezagutu dut zein haundia den benetean euskaldu-



nen herria, gure euskal aberri laztana, eta berari esker ulertu dut «Zapiak Bat» deritzana, gure aberriaren giltza edo sintesia dela, besterik ez; Benetako Euskal Herria askoz zabalagoa bait da izatez eta eskubidez.

Mapa eskualdez eskualde aztertu ondoren, zenbait euskal itxurako toponimo bildu nuen, eta zenbait aldaketa fonetikoren bitartez haundiagotu nuen aipaturiko toponimoen euskal itxura. Gehien erabilitako aldaketa fonetikoak, frantseserazko bukaerei dagozkienak izan dira, honako hauek normalenak izan direlarik: —et/—eta // —sse/—tz // —c/—tz // —ise/—itz // —ons/—ontz // —es/—ez // —ez/—ezt // —on/—oe // —ut/—uta // —es/—ats // —ce/—ats // —é,—e/—a // —ost/—ots // —an/—ain // eta —ons/—ontz.

Bestalde, aipatu beharra dago, zenbat eta hego alderago eta zenbat eta mendebalderago, euskal itxurako toponimoen kopurua ugaritzen doala, gure gaurko Euskal Herri euskalduna, gure toponimiaren ardatza bailitzan. Hona hemen orain nik aurkituriko euskal itxurako toponimoak, frantseseraz idatzirik, eta ondoan aipatutako aldaketa fonetikoak aurrera eramanez ezkerreko sortutako izenak. Beste zenbaitetan nik azaldutako izena ez da inolako aldaketa fruitua, Federico Krutwig-ek bere liburuan eskeinitako euskal izena baizik. Kasu hauetan, euskarazko izenaren atzetik (F.K.) irakur ahal izango da bere iturria garbi utzi nahian.

ATURBE (= Tarbes) (F.K.) ALDEAN

Séméac.....	Semeats
Mascaras.....	Maskarats
Lasbordes.....	Lasborda
Bastourra.....	Basturra
Ibos.....	Ibots
Coarraze.....	Koarratze
Lagoin.....	Lagoin
Lansac.....	Lansats
Oléac.....	Oleats
Lucarré.....	Lukarra
Anoye.....	Anoia
Lasserre.....	Latzerra
Orignac.....	Orinats

AKHITZE (= Dax) ALDEAN

Izosse.....	Izotz
Gourbera.....	Gurbera
Narrosse.....	Narrotz
Mimbaster.....	Minbazter
Auribat.....	Auribat
Lahosse.....	Lahotz
Midouze.....	Midutz
Lesgor.....	Lesgor

Estirac.....	Estirats
Maure.....	d Maure
Abere.....	Abere
Lembeye.....	Lenbeia
Mendousse.....	Mendutz
Uragnoix.....	Urañux
Armentieux.....	Armentiez
Artagnan.....	Artañan
Soreac.....	Soreats
Abos.....	Abots
Sarriac.....	Sárraits
Bicave.....	Bikabe

Chardeo.....	Txardeo
Lizou.....	Lizu
Marrein.....	Marrein
Labadie.....	Labadie
Lagrabiche.....	Lagarabitz

OLORDE (= Oloron) ALDEAN

Escou.....	Esku
Escout.....	Eskuta
Layou.....	Laiu
Aran.....	Aran
Arriu.....	Arriu
Eslayou.....	Eslaiu
Lescar.....	Leskar

LURDE (= Lourdes) ALDEAN

Biscaye.....	Bizkaia
Ossen.....	Otzen

Ourey.....	Urei
Ourdon.....	Urdoe
Artigues.....	Artigats
Barry.....	Barri
Visker.....	Bizker
Arrayou.....	Arraiu
Gazost.....	Aukun
Arragnat.....	Arrañat

MORCENX ALDEAN

Garrosse.....	Garrotz
Arengosse.....	Arengotz
Lesbordes.....	Lesborda
Escource.....	Eskurtze
Jouanicto.....	Juanikot
Onesse.....	Onetz
Labadie.....	Labadie

ARCAÇON ALDEAN

Peyot.....	Peiot
Rue Haïtza.....	Haitza Kalea
Arnouton.....	Arnutoe
Argilet.....	Argileta

PABE (= Pau) ALDEAN

Uzein.....	Utzein
Auga.....	Auga
Sendets.....	Sendets
Uzan.....	Uzan
Andoins.....	Andointz
Espéchède.....	Ezpetxeda
Arrien.....	Arrien
Gabas.....	Gabats

BIGORRA (= Bigorre) ALDEAN

Ordizian.....	Ordizain
Uzer.....	Uzer
Batsére.....	Batsera
Asté.....	Aste
Arrodets.....	Arrodets
Laborde.....	Laborda
Labastide.....	Labastida

CAPBRETON ALDEAN

Hossegor.....	Hotzegor
Biarrotte.....	Biarrota
Bayonnais.....	Baionaitz

SABRES ALDEAN

Labrit.....	Labrit
Harribey.....	Harribei
Garein.....	Garein

MIMIZAN ALDEAN

Biscarrosse.....	Bizkarrotz
Gastez.....	Gaztetz

TOLOSA (= Toulouse) ALDEAN

Muret.....	Murueta (FK)
------------	--------------

AUTX (= Auch) ALDEAN

Elauze.....	Eluza (FK)
Aire.....	Atura (FK)
Lectoure.....	Latsura (FK)

BORDELE (= Bourdeaux) ALDEAN

Auquin.....	Aukin
Labarde.....	Labarde
Libardac.....	Libardats
Garonne.....	Garona
Cadarsac.....	Kadarsats
Bouscarrut.....	Buzkarruta
Genissac.....	Genizats
Libourne.....	Liburna
Lesparre.....	Lasparren (FK)
Blaye.....	Blaia
Lafite.....	Lafite
Artigues.....	Artigats

LANGOE (= Langon) ALDEAN

Larreole.....	Larreola
Uzeste.....	Utzeste
Illats.....	Ilats

MONT DE MARSAN ALDEAN

Gabarret.....	Gabarreta
Labrise.....	Labritz
Arthez.....	Arthetz
Bascons.....	Baskointz
Auzan.....	Autzan

Honekin nik ez dut ezer demostratu nahi, ezin bait da holako likubrazioekin inolaz ere ezer demostratu, baina bai begi bistara azaldu iparraldeko Baskonian, Gaskuñan edo Akitanian dauden euskal itxurako toponimoak, ez bait dira ez bat eta ez bost, askoz gehiago baizik. Agian egun batean, zer edo gehiago jakingo dugu gure anaiak diren gaskoinei buruz, bitartean itxoin beharko honelako gogoetak eginez.

Zabarre

ERABILITAKO ITURRIAK:

- 1.— **KRUTWIG, Federiko.**— «*Vasconia*», 1963
- 2.— **MURUGARREN, Luis.**— «*Donostia*», 1978